

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

UNTZA-APREGINDANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzea

Kontzeju honek, 2026ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeari; espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsita geratzen da. Horregatik, aldaketa oso-osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Tarifei dagokien ordenantza atala aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

Ordenantzaren eranskina

Edateko urez hornitzearen tarifa:

Etxeko erabilerak:

Zerbitzu kuota, urtean: 68,60 euro.

Kontsumo kuota: 0,48 euro/m³.

Industria erabilerak:

Zerbitzu kuota, urtean: 126,00 euro.

Kontsumo kuota: 0,63 euro/m³.

Saneamenduaren tarifa:

Saneamendu zerbitzuari lotutako instalazioak bakarrik.

Zerbitzu kuota, urtean: 15,40 euro

Etxeko kontsumo kuota: 0,17 euro/m³.

Industriako kontsumo kuota: 0,17 euro/m³.

Hargune berriaren tasa:

Etxeko erabilerak: 1.900,00 euro.

Beste erabilera batzuk: 2.500,00 euro.

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Untza-Apregindana, 2026ko irailaren 1a

Lehendakaria

JUAN ZUAZO ECHEVARRIA